

Aldi: or ire lan, dana zar-txilio!  
 Ai, zein itxusia asaben egoitza!  
 Or, bai, gizonaren zabarkeri latza...!  
 Nok leiken barriri lenargia ixio!

Onela jardunik, au zoragarria!,  
 Andra bat aurrean goibel yat agertu:  
 zar dirudi soñez, biotz-astun, laru,  
 naita lenago izan bakana, bitxia.

«Ez bildurrik —diñost—, Euskera bait-nozu,  
 zuen izkuntza zar, minbera, guria,  
 semeen itxikeriz zarpaillez josia;  
 zuk, beintzat, ez nagizu osoan mirrindu.

Zoaz ortik zear, ta Ama miña iragar,  
 betoz ni goratzen aldraka semeak,  
 zutitu begiez nire orma zarrak,  
 lena bizitara ekarriz poz-dardar».

Samur nau ondoren besotarateratu,  
 ta, nigan jarririk ezpan biak bero,  
 bere barren sua niri ezarteko,  
 goi-arnas leguna bizi daust lurrundu.

Ta gero, nire izar dizditsu sotilla,  
 arin yat gordea orma zar ostein.  
 Ene! Sua ñirñir betsain aratzean,  
 baiña susmoa nik betikoz ete illa!

Min dot, arrezkero, min errai azpian,  
 ta danak nai neukez min onen zatiki;  
 zuzper, euskalduna, ta Amagaz erruki,  
 sugarrik ba'dozu oindiño bizian.

## UR-SUGEA

Arraunka ebillen Peru  
 Laida'ko ezpondetan,  
 agur ereska zitula  
 zii-bedarrak bidean.

Arrats-beran, ito-larri,  
 suge bat buru tente  
 ur barrena etorkion  
 igerika zan beste.

—Lagun zakidaz —zirautson—,  
 ezin bait dot geiago;  
 ur ibilliak naroa  
 gero ta zakarrago.

—Ene, baiña, zer dala-ta?  
 Ez ba'neu arriskurik...  
 Zital bat zelan babestu?  
 Gaixo, ez neuke senik!

—Zitala nozu eristen?  
 Ez izan *orren* izurik.  
 Erensugeok uretan  
 ez daukagu pozoirik.

—Ez, e? —arrantzaleak ari—.  
 Indarraren ekiñez  
 ezin uretan usiki,  
 baiña andik kanpora, ez?

—Xaloa nozu, ez dautzut  
 gatxik egingo. Siñetsi  
 —oiu egian sugeak,  
 zintzur-antsika makets.

\* \* \*

Indar-atezu ona nai  
daunari ez siñetsi:  
ona ez miiñez, egitez  
bear da erakutsi.

### EZPAI-BIDEZ

Ezpai-bidez zabilkidaz  
egiaren argi billa;  
estura miñak, orbel antzera,  
bultz eragiñik ixilla,  
au bai iskanbilla!,  
ugin zurbilla  
zuzitu dedilla  
Goiko Jaunari arren eskatuz  
bizitza gurpilla.

Bizitza ez dakik zer dan,  
poz-leiar ala min-ura;  
onek lauskitzen yaustak biotza,  
ixuriaz arrenkura.  
Galde dagik: «Nora  
doa bira-bira  
negu eta uda,  
urterik urte, gizaldi luzez,  
niri saminki ozka?»

Ta naspillean bilduak  
gu goaz beti aurrera...  
Jarets eziña ete dogu iñondik  
jo-muga orren ditzira?  
Zorun iturrira  
beti begira,  
biziak dira...  
baiña zalantza edatzen yak,  
oi, gaxo!, biotz erdira.

### IPARRAK IRRI

Ipar aizeak atzo, leunkiro,  
lili artean ebillelarik,  
ego biak urdin,  
irri eustan egin.

Norbaitek ixilka  
iragar al dautzu,  
aize ekarkor orri,  
nire poz ezkutu?

Gaur, atzo ez lez, burua makur  
noa bidetik, gogapen sortaz.  
Iparra itun dabil,  
ostokaz dildil.

Nik bere zuk lez, so!, arpegian,  
etsi-etsirik muin barrenian,  
eun ubel kolore,  
miñaren zapore.

Baiña zuk, aizeño,  
—par orri nakio—  
zabiltza betiro  
ezti irri jario.